



Europako
Batzordea

INGURUMEN-ARAUAK BETETZEAREN BERMEA

EUROPAR BATASUNAREN EKINTZA-PLANA



ARAUAK BETETZEA



ARAUAK BETETZEA
SUSTATZEA



IKUSKAPENAK
ETA KONTROLAK



BETEARAZTEA

Ingurumeneko arauak aintzat hartzea...

Europar Batasunak ezarriak ditu arau batzuk —legez egin behar dena eta egin behar ez

dena—, ingurumen-onurak ekarriko dituztenak guztiontzat: ur garbia, aire arnasgarri bat, natura osasuntsu bat...

Enpresek eta beste alderdi interesdun batzuek bete egin behar dituzte arau horiek; bestela, osasun-kostuen gehikuntza, diru-sarrera publikoen murrizketa eta enpresen arteko lehia desleiala nozitu beharko ditu gizarteak. Batzordeak bederatzi puntuko ekintza-plan bat prestatu du, agintari publikoei lagunduko diena arauak sustatzen, gainbegiratzen eta betearazten.

Sustatzeak esan nahi du enpresei eta beste alderdi interesdun batzuei laguntzea bidezkoa egin dezaten.

Gainbegiratzeak esan nahi du ikuskapenak eta beste kontrol batzuk baliatzea betetze-mailei buruzko informazioa biltzeko eta arauen aplikazioari buruzko froga sendoak emateko.

Betearazteak esan nahi du arauak betetzen ez dituztenak atzematea, eta horiei zehapenak jartzea eta kalteak zuzenduaraztea.

Agintari publikoen egiteko horri “Ingurumen-arauak betetzearen bermea” deitzen zaio.

Ingurumen-arauen adibideak

Ez da hau egin behar:

- Landa-eremuan hondakinak bota.
- Industria-esplotazio bat ustiatu, ingurumen-baimenik gabe.
- Udaberrian hegazti basatiak ehizatu, ugaltzen edo migratzen ari direla.

Hau egin behar da

- Hondakinak entregatu horiek biltzeko edo tratatzeko gaiakuntza dutenei.
- Industriako edo beste mota bateko baimen batean ezarritako baldintzak errespetatu.
- Hiriko hondakin-urak tratatu, ibaira edo itsasora isur aurretik.

Ekintzen helburua hau da:

Ikuskatzaile eta funtzionario judizialei indarrak batzen laguntzea

Europar Batasuneko ingurumen-ikuskatzaileak elkarrekin ari dira lanean jada hondakinak lekualdatzeko baterako ikuskapenetan. Batzordea ahalegin komun hori indartzen saiatuko da.



Lanbide-heziketa sustatzea

Ingurumen-ikuskatzaileek eta beste profesional batzuek ezagutza teknikoak eta prestakuntzakoak behar dituzte, eraginkorrak izango badira. Batzordeak prestakuntza-premiak identifikatzea babestuko du.



Ezagutzak zabaltzea

Garrantzitsua da ingurumen-arauak betetzeko bermearen inguruko informazio egokia izatea. Batzordeak informazio gehiago argitaratuko du online.



Isurketa-delituen eta flora eta faunaren kontrako delituen aurkako borrokan laguntzea


Isurketa-delituek ez dute landa-eremuan soilik eragiten kaltea; ekonomia zirkularra ere kaltetzen dute. Floraren eta faunaren kontrako delituak mehatxu bat dira galzoriko espezieentzat. Arazo horiei aurre egiteko dauden modu egokiei buruzko gidak landuko dira.



Landa-eremuetan hobeto berrn

Gidak landuko dira, lagunduko dutenak berri gainerako arduradunek ingurumen-arauak bete buruzko legeei jarraikiz. Hartara, gure ibai espezie bereziak babestuta e





Erauzketa-industriako hondakinen instalazioak ikuskatzeko jarraibide teknikoak lantzea

Jarraibideak landuko dira, meatze-hondakinak biltegitatzeko instalazioetan ikuskapenak egiteari buruz. Izan ere, arduragabekeriak ingurumen-hondamendiak eragin ditzakete.



Herritarren salaketen tramitazioa hobetzea

Agintarientzako gidak egingo dira, herritarren kexei hobeto erantzuten laguntzeko. Herritarrek baliozko informazioa ematen dute praktika txarren inguruan, eta horrek lagun dezake agintariek beren lana hobeto egin dezaten.



Sateliteen erabilera garatzea

Batzordeak, Copernicus programaren bidez, satelite bidezko irudiak eta datu geospazialen beste iturri batzuk erabiltzea sustatuko du, hondakinen legez kontrako isurketa, lurren legez kontrako erabilerak eta beste arau-hauste batzuk atzemateko.



Estatu kideei beren aurrerabideari buruzko informazio hobea eskaintzea

Batzordeak informazioa emango die estatu kideei, bakoitzaren errendimenduari buruz, eta lagundu egingo die beren indarguneak eta ahuldadeak identifikatzen.



Landaketa arauak betetzen direla

Landaketa arauak betetzen direla bermatzeko, nekazariek eta lur-kudeaketaren arauak betetzea, EBko naturaren eta uren babesari buruzko arauak, eta lakuak, ur-hornidurak eta habitat eta landaketa arauak betetzen direla bermatzeko.

Noiz, nola eta norekin

Egutegia

2018-2019 aldian egingo dira ekintzak.

Goi-mailako foro berria

Goi-mailako aditu talde batek foro gisa jardungo du, ekintza-plana eta horrekin lotutako gaiak zuzentzeko. Horrek elkartu egingo ditu estatu kideetako administrazioak eta profesionalak, eremu honetan erantzukizunak dituztenak.

Lankidetzeta estua, ingurumeneko ikuskatzaile, polizia, fiskal, epaile eta auditoreen Europako sareekin

Ekintzak honako hauen guztien lanean sostengatuko dira: ingurumen-ikuskatzaileen Europako sareak (IMPEL), ingurumen-delinquentziaren aurkako borrokan espezializatutako polizia-agenteak (EnviCrimeNet), ingurumen-fiskaltzak (ENPE), epaileak (EUFJE) eta ingurumen-auditoreak (Eurosai). Horiek guztiak partaidetzeta estua izango dute ekintza-planaren exekuzioan. Sare horiek funtsezko egitekoa dute ezagutza-trukean.

Arauk betetzeko bermearen katea indartzea

Batzordeak lanean jardungo du profesional horien funtzioak lotzen dituen katea indartzeko.

2017an, polizia-agenteen, ikuskatzaileen eta fiskalen sareek elkar ulertzeko memorandum bat sinatu zuten, zeinak aitortzen duen zer nolako balioa daukan euren arteko lotura estuak, ingurumen-delituen kontrako borrokan.



Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/environment/legal/compliance_en.htm

© Unión Europea, 2018
Luxemburgo: Oficina de Publicaciones de la Unión Europea, 2018
Reutilización autorizada, con indicación de la fuente bibliográfica.
La política relativa a la reutilización de los documentos de la Comisión Europea fue establecida por la Decisión 2011/833/UE (DO L 330 de 14.12.2011, p. 39).

Argitaraldia: 1.a argitalaxe honetan: 2019ko iraila

Ale-kopurua: 170 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.
Lehendakaritza

Internet: www.euskadi.eus

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 - Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: PRINTHAUS, S. L.

Lege-gordailua: VI XXXX-2019



LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco